



orixeikastola

DENOK GOAZ ITSASONTZI BEREAN

Guraso Elkartearen jardura onen lehiaketa



1 DENOK GOAZ ITSASONTZI BEREAN.

HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOA ORIXE IKASTOLAREN IRUDI BERRITZEAN

Proiektu hau Guraso Elkartearen eskutik jaio zen eta sarean eraikia izan da, hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzearekin. **Orixe Ikastolaren Logotipo berria sortu dugu.**

1.1 ITSASOARI BEGIRATZEN DION TALDEA. Orixe Ikastola, Donostiako Parte Zaharreko Oinarrizko Hezkuntzako eskola publikoa da. Osotara HHn 166 ikasle eta LHn 190 ikasle ditu eta 40 hezitzaile.

Guraso Elkartean eta Eskolako ekimenetan familien inplikazio maila altua da eta, horrela, azken urteetan familiak eskolako ekimenetan gehiago murgilduz joan gara: kurtso amaierako jaialdiaren antolaketan eta bazkari prestaketan, eskolaz kanpoko jardueren kudeaketan, festa egunetako ospakizunen antolaketan...

Eskolan **Hezkuntza Proiektu globala** garatu da joan den ikasturtea arte, Eskolako proiektuak modu globalean lantzea eta hezkuntza komunitate osoak parte hartzea xede harturik.

1.2 ABENTURA GOGOAREKIN. 2011-2012 ikasturte hasieran, Guraso Elkartearen bileretan, hezkuntza komunitatean modu aktiboagoan parte hartzeko grina agertu zen. Horretarako egitasmo bat proposatu genuen: Orixe Ikastolaren logotipoaren aldaketa, horren inguruan Eskola osoaren elkarlan prozesua eraikiz.

Horrela, paperezko orri bat hartu eta itsasontzia eraikitzearen keinu xumea, abentura eder baten pizgarri bihurtu da. Paperezko itsasontzia da gure Eskolaren logotipo berria. Ongi etorri gurekin bidaiatzera!

2 BIDAIA PRESTATZEN.

ABIAPUNTUKO EGOERA

Orixe Ikastolak logo moduan erabiltzen zuen irudia duela hemezortzi urte jaialdi baterako margotua izan zen. Denbora zen zenbait guraso eta irakaslek eskolaren ikus identitate edo logoaren egokitasuna auzitan jarria zutela eta gai honi heltzea proposatu genuen Guraso Elkartetik.

Aldaketaren egitasmoa martxan jarri aurretik, Elkartetik Eskolako eragileekin logoaren inguruan hitz egin genuen eta zenbait faktorek irudia berritzearen proposamena sendotu eta azkartu zuten. Arraun!

2.1 ILUSIOZ, BIDAIRAKO PREST. Zenbait guraso, irakasle eta ikasle, urteen poderioz irudi honi atxikiak zeuden, beste zenbaitek zaharkitua edo/eta ez-funtzionala zela uste zuten; beste batzuek ez zuten irudia ezagutu ere egiten. Baina denek agertu zuten ilusioa irudia berritzeko prozesuarekin.

2.2 ZUZENDU BEHARREKOAK. Zuzendaritzaren esperientziatik, Orixe Ikastolako aurreko logoak, formalki konplexua zenez, komunikazio euskarrietan erabilgarritasun mugatua zuten: fotokopietan grisetara pasatzean ez ziren atalak ezberdintzen, tamaina txikian ez zen irudia ulertzen. Denbora zeramaten kontu honi nola heldu asmatu ezinik. Gainera, 2011-2012 ikasturterako papergintzako ale berriak egitear zeuden, beraz, une ezin hobea iruditu zitzairen irudiaren aldaketa egiteko.

2.3 WEB GUNEA NABIGATZEKO PRESTATZEN. Web gunea abian jartzeko probek ere erakutsi zuten logo zaharra ez zela egokia pantailarako. IKTko arduradunei ere, beraz, ondo iruditu zitzairen irudi berriaren ideia.

3 BIDE-ORRIA.

LOGOTIPOA ALDATZEKO BIDAIA, NORABIDE ETA HELMUGAK

Proposamenaren abiapuntua Orixe Ikastolarentzat identitate grafiko indartsua lortzea izan da. Hori logotipo bat sortzea baino askoz gehiago da, Eskola osatzen duen talde osoaren izaera bisuala izan behar du eta. Aldaketa prozesuan Eskolako partaide guztion parte-hartzea ezinbestekoa zen, beraz.

Ondorioz, bi motatako helburuak zituen nagusiki proiektuak:

3.1 KOMUNIKAZIO SISTEMAREN HELBURUAK: Irudiak izan zezakeen garapen ahalmenari eman zitzaion garrantzia, aurreko irudiaren esanahiak mantenduz, honako helburuekin:

- Komunikazioa hobetu eta antolatutzeko ikur-grafikoen sistema funtzional, ekonomiko eta arautua lortzea.
- Hezkuntza komunitatea identifikatua sentitzea eta honen identifikagarri bihurtzea, desberdintzea.
- Kanpora eta barrura begira proiektatzen den itxura hobetzea, berritzea eta eguneratzea.
- Taldekide edo partaide izatearen sentimendua indartzea.
- Logotipo eta lerro grafiko berriaren ezarpena: Eskolako barne eta kanpo komunikaziorako paper ofizial guztietan, zirkularretako goiburukoetan, txostenen azaletan, web gunean, blogean, elastikoetan, karteletan...

3.2 BIDAIA ELKARBIZITZA LANTZEKO HELBURUAK: Irudi aldaketa prozesuari berari eman nahi izan zitzaion garrantzia, eramandako dinamikaren bidez bestelako helburuak lortzearen:

- Hezkuntza Komunitate osoaren parte hartzea bultzatzea.
- Elkarbizitza sustatzeko zeharkako talde lana martxan jartzea.
- Eskolako kide eta parte gairela sentiaraztea.
- Kide guztiok aldaketa horretan parte hartu dugula sentitzea.
- Proiektu pedagogikoaren parte izatea.
- Oinarrizko Gaitasunak garatzeko bide izatea.



4 BIDEKO ESPERIENTZIA DA BENETAKO ALTXORRA.

IRUDI BERRITZEAREN PROZESUAN ELKARLANA

Guraso Elkartearantz, proiektu honen xede garrantzitsuenetako bat **hezkuntza komunitate** kontzeptua zabaltzea eta ikasgelatik ateratzea izan da, irakasleak, ikasleak, familiak, IKT proiektuko arduradunak eta gainontzeko hezitzaileak inplikatu eta harremanean jarriaz. Guraso Elkartetik aritu gara une oro proiektuaren koordinazio lanetan, bilerak, ekintzak eta tailerrak antolatuz. Boga!

4.1 BIDAIA AMESTU. Guraso Elkartetik Zuzendaritzari proposamena egin genion eta honek haseratik bere adostasuna agertu zuen. Beraz, komunitate osoari proiektua azaltzeko modua eta partehartzea nola izan zitekeen aztertu genuen.

Gurasoen artean diseinu grafikoan eta komunikazioan profesionalak ditugunez, irudi berriaren ideatze eta sortze prozesuaren pisu handiena beraiek hartzea iruditu zitzaigun egokiena. Guraso Elkartea izan zen proiektua bultzatu eta indartzeko asmoa bere gain hartu zuena, lankidetzaz sustatuz.

4.2 BIDAIA MARTXAN. Guraso Elkarteko kideek Batzorde Iraunkorrera eraman genuen ideia, eta bertako kideek aurreko logotik zein esanahi mantendu eta zein berri iradoki behar ote zituzten proposatu zuten.

Irakasle Klaustroari modu berean ideia agertu zitzaion eta hauen ekarpenak jaso ziren.

Organo Gorenari proiektua eta logo berrirako zirriborroa eta aplikazio aukerak aurkeztu zitzaizkion eta han txalotua izan zen proposamena. Eskolaren ikus identitatea berritzea onartu zen.

Horrela, Guraso Elkartean proiektua gauzatzeko talde lana antolatu genuen, ezartze eta hedatze egutegi bat osatuz, eta une oroko lankidetzaz bermatu genuen: zuzendaritza, irakasleak, IKT arduradunak, ikasleak, eta Guraso Elkartea, aktiboki parte hartzen ez duten familienganaino ere iritsiz.

4.3 ELKARREKIN BIDAIATU. Guraso Elkartetik, Batzorde Pedagogikoaren laguntzaz, eta irakasleekin koordinatuz, mailaz maila haurrekin geletan lantzeko, jarduera pedagogikoak zerrendatu genituen, irudi berria eta horren esanahia lantzeko. Jarduera horien helburua logoak iradoki dezakeena adierazten laguntzea eta ikasleek honen harira ekarpenak egitea zen; aldi berean, ikasleen parte-hartzea eta talde lana bultzatzea eta zeharka beste ikasuntzak barneratzeko tresna izatea ere bazuten xede.

Irakasleek, Klaustro eta Bileretan landu ondoren, mailaka ikasgaien curriculumarekin bat egingo zuten jarduerak aukeratu eta berriak proposatu zituzten; ikasleei irudia aurkezteko eta hura barneratzeko modu egokia izan zen hori. Hauetako jarduera batzuek dagoeneko egiten zirenen egokitzapena ere izan ziren.

4.4 BIDAIA KONPARTITU. Familia guztiei informazioa helarazteko modu gisa Guraso Elkarteko aldizkaria ere erabili genuen, aurreko logoa aztertuz, eta aldaketa eta proiektuaren helburuak adieraziz.

Guraso eta ikasleek egindako jarduera, tailer eta aurkezpenak argazki eta bideotan jaso ziren eta blogean eta web gune berrian zintzilikatu komunitate osora heltzeko asmoz.

Ikasturte amaierako jaialdia berezia izan zen, inoiz baino arrakastatsuagoa; irudi berria gizarteratzeko bide moduan erabili zen. Logotipoarekin jokatu, itsasontzidun elastikoak eta haurrentzako pin tailerra egin ziren. Elastikoekin lorturiko irabaziekin ale guztiak ordaintzeaz gain, logotipo berriaren irudiarekin lonazko bi kartel handi egin ziren Eskolarako.

5 IZARRAK BERRINTERPRETATUZ, BIDEAK SORTU.

LOGOAREN ESANAHIAK ETA ESKOLAN EGINDAKO JARDUERAK

Logotipo aldaketarekin, aurreko irudiaren esanahiak dira oinarrian mantendu nahi izan zirenak, aurrekoaren jarraipen gisa, mamia errespetatuz. Garrantzia handia eman zaio, logotipoaren ideien inguruan sor daitekeen garapenari, duen esperientziarako ahalmena eta aplikazio pedagogikoa dela eta. Bestalde sinplea, argia eta zehatza da, komunikazio aldetik erabilgarritasun handikoa bihurtzen duena. Ttaup, Ttaup!

5.1 AURREKO IRUDIAREN ESANAHIAK. Irakasle, guraso eta ikasleekin egindako aurkezpen eta tailerretan, aurreko logoak iradokitzen zituen esanahien zerrenda atera zen eta hauetatik zein esanahi mantendu eta indartu behar ziren planteatu zen:

Itsasoaren garrantzia, Urgull-Kaia (Donostia baino Parte Zaharra izatea nagusi), liburua, hezkuntza, Orixe, kultura (hezkuntzari erreferentzia bezala), haurrei erreferentzia edo eskuz egindako lana agertzen duena.

5.2 LOGOTIPO BERRIAN PAPERETZKO ITSASONTZIA. Honela, kontzeptu horiek guztiak paperezko itsasontzi geometriko urdin eta berde batean sintetizatu ziren, *Orixe Ikastola* hitzek itsasoa irudikatuz logoan. Honek aurretik aipatutako esanahi guztiekin lotura du. Garrantzitsua da paperezko itsasontzia errealitatean eraiki dezakegun objektua izatea, eskuz egina, honela irudi baino gehiago elementu identifikagarria bihurtu da. Papiroflexiazko itsasontzia irakaskuntzaren metafora ere bada: jarraibideak izanda, irudimenez eta esperimendatuz zerbait beste erabilera edo zentzu bat eman diezaiokegu helburutara helduz. Esan daiteke itsasontzia edonork egin dezakeela, eta “Zuk Zeuk egin” hori potentzialitate pedagogiko bezala ustiatu behar da, bere balioa askotarikoagoa eginez. Denok goaz itsasontzi berean.

5.3 URRATSEZ URRATS, ELKARLANEAN. Irakasleek, Guraso Elkartek Talde Pedagogikoarekin batera aurkezturiko zerrenda oinarri harturik, honako ekintzok landu zituzten, geletan bertan edo bestelako erakunderen batekin elkarlanean, betiere logoaren esanahitik eta aukeretatik abiatu eta maila bakoitzeko helburuak kontuan izanik:



HH 2 urte: Kolax moduan, itsasontzi handi batetan ikasleen argazki eta marrazkiak kokatu zituzten, hiru geletako ikasleak elkarrekin jarriaz.

HH 3 urte: Eraikitako paperezko itsasontzietan ikasleen aurpegia duten pertsonaia taldeak kokatu zituzten.

HH 4 urte: Ikasle bakoitzak bere itsasontzia marraztu eta bere burua bertan kokatu zuen, itsasontziz betetako itsasoa eraikiz taldearen artean. Untzi Museora bisita. Aquariumera bisita.

HH 5 urte: Pirata-liburua osatu zuten ikasle bakoitzak bere pirata sortuz. Piraten uhartera horma-irudia, ikaskide guztien irudiekin osatu eta itsasontzi ugariaren itsasoa. Untzi Museora bisita.

LH 1. maila: Santa Klara Uhartera irteera uhartereko motoran, altxorraren bila abiatu ziren. Aquariumera irteera marrazoak nolakoak diren ikustera eta haien bizimodua lantzeraz.

LH 2. maila: Igeriketa ikastaroa. Parte Zaharreko historia ezagutzeko irteera, Parte Zaharretik ibilbidea Kaiaren eta Urgullen garrantzia auzoaren historian kokatuz.

LH 3. maila: Kristina Eneara irteera, 2011-12 ikasturtean Agenda 21en gai nagusi izan den "Itsasoa"ren gaia lantzeraz, ura naturan eta uraren kutsadura. Kontxako hondartzara irteera, hondartza garbitzeraz. Txotxongilo emanaldiaren prestakuntza eta aurkezpena: "Itsasoko zazpi animaliak".

LH 4. maila: Donostiako eta Parte Zaharreko historia ezagutzeko irteera, San Telmo Museoko gidarekin, Parte Zaharretik ibilbidea Kaiaren amaituz. Haur-liburuaren Nazioarteko Egunean Pello Añorga idazle eta ipuin-kontalariarekin tailerra.

LH 5. maila: Gurasoek ikasleekin tailerrak antolatu zituzten logoaren inguruan zenbait praktika egiteko eta ikasleen ekarpenak jasotzeko: papiroflexia tailerra, ipuin dadaista taldean eraiki eta esanahien mapa eraiki. Belaontzian ibiltzeko ikastaroa. Ondarretara irteera itsasoko bizitza ezagutzera. Pasaiako Itsas gelara irteera arrantza mundua ezagutzera eta traineru batean elkarrekin arraun egiteko esperientzia ezagutzera.

LH 6. maila: Ondarretara irteera itsasertzeko ekosistema aztertzeraz. Untzi Museora irteera. Pasaiako Itsas Gelara irteera itsasoko gaiak ezagutu eta lantzeraz. Piragua ikastaroa. "Itsasoa ez da zabor-ontzia" horma-irudia egitea. Flish-ak ezagutzera txangoa Zumaiara.

Eskola 2.0rekin bat eginik, interneten ere gure itsasontzian nabigatzen dugula esaten dugu, eta PROA eskola-laguntza programa itsasontziaren aurrealdea bilakatu zaigu. Barnehartzailea eta partehartzailea da gure itsasontzia.

6 ZERUMUGARA BEGIRA.

ORAIN ETA AURRERANTZEAN KOMUNIKAZIO ETA PEDAGOGIA

ARLOAN LANDUKO DIRENAK

Ekimena oso modu positiboan baloratua izan da Hezkuntza Komunitateko partaide guztien aldetik Eskolan eta auzoan. Irudi berriak komunikazio aldetik aurrerapausoa ekarri du bai elementu askoren bateratze grafikoa gertatu delako eta baita berehalako nork bere egin duelako.

Etekin atera zaio modu pedagogikoan, bai arlo akademikoan bai aisialdikoan. Eta, batez ere, dinamika positiboak martxan jarri dira Guraso Elkarte barruan eta gainontzeko partaideekin harremanetan. Aurrera!

6.1 ITSASONTZIA LEKU ASKOTARA IRITSIKO DA. Komunikazioari dagokionez, hurrengo ikasturteetan modu mailakatuan Guraso Elkartetik honako aldaketak edo berrikuntzak bideratuko ditugu Eskolarekin elkarlanean: kiroletako elastikoak, danborradarako bandera, Eskolaren Eraikinetarako seinaleak eta unean-unean suertatzen dena. Biblioteka grafikoa sortuko da, irakasleek jakintza arlo bakoitzari lotutako itsasontzidun irudia apunteetan txertatu edo azal moduan erabili ahal izateko.

6.2 DENOK BATERA ARRAUNEAN, DENOK LEMAZAIN. Curriculumari jarraituz, programazioetan txertatuz joan dira itsasontzia eta itsasoa ildo amankomun bezala duten jarduerak, gai ugari zeharka lantzeko asmoz. Eskolan, etapa, ziklo eta maila bakoitzean oinarriko gaitasunak garatzeko, esperientzia-eremu eta arlo guztietatik irudimena erabiliz, urrutia iritsi gaitzke:

- Ingurunearen Ezagutza: itsasoak, kartografia, izar bidezko orientazioa, barkuen flotagarritasuna, bidai historikoak, garraio bideak, portu eta itsasoarekin lotutako pertsonen bizitzak (Aita Mari...)...
- Arte Hezkuntza: papiroflexia lantzea, marraztea, itsasontzia apaintzea (margoz, gometxeekin), maketak jokoa eta sormena erabiliz sortzea, eszenetan txertatzea, elastikoetan itsasontzia margotzea, klarionekin lurra itsaso bihurtzea, horma-irudiak eratzea...
- Gorpuz Hezkuntza: piraguan arraun egitea, belaontzian ibiltzea, igeriketan aritzea, papiroflexia lantzea psikomotrizitate fina garatuz...
- Hizkuntzak: itsasoarekin lotutako abenturazko eleberriak Irakurketa Planean txertatuz, beste hizkuntzadun herrialdeetara alegiazko bidaiak, mezu ezkutua bidaltzea, istorio edo bertsoak sortzea, abesti bilduma egitea...
- Matematika: papiroflexiaren zehaztasuna, lau hirukiren konposaketa, marrazketa teknikoaren oinarriak...
- Herritartasuna eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza: taldearen antolaketa eta elkarbizitza itsasontzian, ikasgela itsasontzi bihurtuz bizikidetzara-arauek proposatu, paperaren birziklapena, gelako arduraduna lemazain izandatzeara...

ERANSKINA. Proiektua iruditan